



# KIDeko Politika Integratua

🛡️ SEGURTASUNA ETA OSASUNA

🌿 INGURUMENA

★ KALITATEA



## Gure konpromisoa

**KIDE S.COOP**.eko agintaritza gorenak, **MISIOA**rekin bat etorri eta kontuan izanik kooperatibaren jardura, produktu eta zerbitzuen helmena eta inpaktua, honako **konpromiso hauek hartzen ditu:**

- ① Kudeaketa Sistema Integratuaren eraginkortasuna eta efizientzia **etengabe hobetzea, Bezero, Langile eta gainontzeko Interesdunen gogoia betetzeko, horretarako hurrengoak zainduta:**

# Kudeaketa Sistema Integratuaren zutabeak



## Produktuaren eta Zerbitzuaren Kalitatea

Bezeroei eskaintzen dizkiegun produktu eta zerbitzu guztietan bikaintasuna bermatzea.



## Ingurumenaren Babesa

Kutsaduraren aurkako babesa eta prebentzioa barne, **gure produktuak ingurumenean duen eragina hobetzea** (bai isolamendu mailan bai errefrigerante mailan)



## Segurtasuna eta Osasuna

Enpresako kide guztien **Segurtasuna eta Osasuna babestea** eta hobetzea, **lan arriskuaren prebentzioaren** bitartez, bai eta lan baldintzak hobetuta eta osasuna sustatuta ere.



## Lege-betetzea

**Legeek** eta erregelamenduek ezarritako **betekizunak** eta enpresak agindutako beste batzuk ere betetzea.

## Langileen parte hartzea

**Bermatzea** langileei **kontsulta egin, prestakuntza eman eta informazioa** helaraziko zaiela **eta partaidetza** sustatuko dela.

## Maila Guztietako Integrazioa

**Kalitatea, Ingurumena eta Lan Arriskuaren Prebentzioa** enpresako maila guztietan **txertatzea**, horiei lotutako zereginak eta erantzukizunak esleituta.

## Pertsonen Garapena

**Pertsonen garapena sustatzea**, bai eta horretarako baliabide ekonomiko eta material egokiak erabiltzea ere.

## Komunikazioa eta Dokumentazioa

**Kalitate, Ingurumen eta Lan Arriskuaren Prebentzioarekin lotutako** Politika bat **jakinaraztea, dokumentatzea, ezartzea eta egunean edukitzea**; Politika hori, era berean, enpresako maila guztietan ezaguna, ulertua, onartua eta garatua izan beharko da.



# Erreferentzia markoa eta berrikuspen-esparrua

Politika hori da **Sistemaren Helburuak eta Jomugak** betetzea ezarri, ikuskatu eta bermatzeko **erreferentzia markoa**.

Era berean, Politika hori **Interesdun** guztien eskura egongo da.

## Erreferentziazko arauak

Politika **ISO 9001 eta ISO 14001 Arauetan ezarritako betekizunei** jarraituta garatu da.

## Urteroko Berrikuspena

Urtero Zuzendaritza Kontseiluak berrikusiko du Politika, **Sistemaren Urteroko Berrikuspenaren baitan**.